

MARGARITA ROBLES

M A G I S T R A T U A

Margarita Robles epailea da, eta tarte baterako judikatuta utzi zuen PSOEko gobernuan parte hartzeko, Belloch Barne eta Justizia ministroaren taldean. Bi urtez

Barne Idazkaritzaren ardura izan zuen, Perez Esquivel Bakearen Nobel saridunaren bitartez Gobernua ETArekin harremanetan izan

zen garaian. PSOEek hauskundeak galdu ondoren epaile lanetara itzuli zen, eta egun magistratua da Entzutegi Nazionalan. Beste 145 profesional eta intelektualekin batera, elkarrizketa eta negoziazioaren aldeko agiria sinatu eta zabal-tzen ari da. Astelehenean Bilbon eta Gasteizen izan zen.

«Elkarrizketaren bidean zerbaitetan amore ematea da politikarien handitasuna»

Sabino Arana Fundazioaren egoitzan elkarrizketa bidezko irteeraren aldeko agiria aurkezteko prentsaurrekoan parte hartu ondoren, tarte bat egin zuen elkarrizketa bat eskaintzeko, Fundazioko lehendakariaren bulegoan bertan.



Margarita Robles, Bilbon, Sabin Etxeko bulego batean.

MIKEL RUIZ

■ Agiriarekin sinatzaileek politikoki zuzena den diskurtsoa hautsi nahia agertu zenuten aurkezpenean. Orain arte, lortzen ari zarete?

Jende asko pribatuan esaten duena jendaurrean esateko beldurra galtzen hasi den neurrian, lortzen ari da. Jende askok pribatuan esaten du 30 urte ondoren hau ez dela bidea eta elkarrizketara jo beharra dagoela, baina jendaurrean kritikatu duten beldur den jendea badago. Agiri honen ondorioz, jende askoren deiak izan ditugu, batzuk sinatu nahian eta batez ere honako hau esanez: «Begira, nahiz eta jendaurrean ez esan, zuekin gaude». Pixkanaka, demokrazia batean lortzen badugu bakoitzak bere ideiak azaldu ahal izatea, nahiko aurrera egingo dugu.

■ Agiria aurkeztu den momentuari dagokionez, jakitun zaudete ez dela onena hauteskunde garaia datorrelako, baina, hala ere, aurrera egin duzue.

Espainiako Estatuan etengabe gaude hauteskunde egoeran: autonomikoak, orokorrak, udal hauteskundeak... Ez gaude prest onartzeko Euskadiren baketzea, erabat beharrezkoa iruditzen zaiguna, beti hauteskunde gorabeheren menpe egotea.

■ Momentuari dagokionez, bestalde, Irlandako olatuaz baliatu edo baliatuko zarete?

Egia esan, ideia 1997ko irailaren 15aren ondoren sortu zen, Ipar Irlandako bake prozesua jendaurrean hasi zenean, Stormonten, eta momentu egokia iruditu zitzaigun nolabaiteko paralelismoa egitea Ipar Irlandan erabiltzen ari zen metodoari buruz eta Euskadin erabili beharrekoari buruz. Batez ere, jendeak aldeak markatu nahi zituelako eta esan Euskadi ez dela Irlanda bezalako. Ez dira berdinak, baina bakea lortzeko borondatea dagoenean metodo zuzena Irlandan erabilitakoa da: elkarrizketa. Gobernu britainiarraren eta Tony Blairren aldetik, eta baita Sinn Fein eta IRAren aldetik ere.

■ Ipar Irlandako kasuan, gakoetako bat izan da Londresko Gobernuak onartu izana eszenatoki aldaketa bat subirotasunari dagokionez. Gako hori Euskal Herrian ere garrantzitsua izan liteke?

Nire ustez, kasuak ezberdinak izango dira, baina aurrera egiteko eta elkarrizketarako borondatea dagoenean gai asko daude ikasteko. Adibidez, Ardanzaren dokumentuarekin ados egon daiteke edo ez, gauza batzuekin ados egon daiteke eta beste batzuekin ez, baina lanerako proposamen serio bat da, eta hortik aurrera mahai batean jesarri behar da; prozesu luzeak dira eta gai asko eztabaidatu ahal dira. Elkarrizketari ez zaio inoiz beldurra izan behar. Eta elkarrizketaren bidean amore emate batzuk egin behar badira planteamenduetan; hori da politikarien handitasuna: batzuetan amore ematen jakitea.

■ Baina, zure ustez, mahai gainean subirotasun arazoa jartzeko garrantzitsua da?

Nik ez dut ezer baztertzen. Borondate politikoa dagoenean, dena jar daiteke mahai gainean. Indarkeria ez da bitartekoa ezer lortzeko. Indarkeriarik ez dagoenean, ez da izan behar arazorik hitz egiteko, den denetaz. Niri ez dit beldurrik ematen autodeterminazioa edo subirotasuna bezalako kontzeptuetaz, jendeak hitz

ELKARRIZKETA
«Bakea lortzeko borondatea dagoenean, metodo zuzena Irlandan erabili dena da: elkarrizketa»

CESID
«Ez daukat nire garaian HBren egoitza espiazten zelako berririk. Hau bi urte geroago agertu da»

egiten eta eztabaidatzen duenean, aberasgarri suertatzen delako. Ez da positiboa, ordea, errepresioaren bidera bakarrik jotzea edo atentatuetara jotzea. Bide polizialera eta atentatuetara bakarrik jotzen denean batzuk eta besteak huts egiten ari dira.

■ Esan ohi duzu HBk eta ETak ausardiaz jokatu behar dutela, ez daudela egoerak eskatzen duen mailan. Zer esan nahi duzu?

Espainiako Gobernuari Tony Blairren ausardia falta zaiola esan dudana moduan, ezker abertzalearen aldetik benetako ado-

rea falta zaio. ETak eduki behar lukeen benetako ekimen politikoa tregoa bat deklaratzeko litzateke. IRAk tregoa bat deklaratu zuenean inork ez zuen esan ez zirela behar bezain abertzaleak. ETak jakin beharko luke bere benetako malgutasun politikoa tregoa bat deklaratzeko litzatekeela. ETA azterketa okerra egiten ari da errealtateaz. HBk Gerry Adamsen figura imitatu beharko luke. Ezin da egon esaten *Alternatiba Demokratikoa* eta eredu irlandarra defenditzen direla eta gero enrokatuta egon proposamen zehatzik egin gabe, eta tregoa bat bezalako proposamen astintzailea. ETak pentsatzen badu tregoa bat deklaratzeko ahulezia seinaleak ematen dituela azterketa okerra egiten ari da.

■ Tregoa bat ez ezik, beste zerbait bururatzen zaizu?

Bi gauza diferente ikusten ditut. Batetik, ETaren tregoa deklarazio bat eta bestetik kontaktu batzuk izatea HBren aldeko talde politikoekin, HB irekitzea gizartera, oso garrantzitsua litzateke.

■ Agiriaren planteamendu nagusia erakundeetan eta iritzi publiko espainiarrean eragitea da. Ezker abertzalearengan eragiteko asmorik baduzue?

Niri gustatuko litzaidake horrela izatea. Guk Madrilen pentsatzen egin dugu, bertan diskurtso ofiziala bide polizialen

alde dagoelako eta uste dugulako diskurtso okerra dela. Baina gus-tatuko litzaidake ezker abertzaleak gogoeta politikoa egitea eta batzutan beraiek bezala pentsatzen ez dugunoi entzutea, denak ez baitira etsaiak.

■ CESIDen entzuteken aferari dagokionez, ETaren kontrako borrokan bidelasterrik erabili izan salatu duzu.

Indarkeriaren kontra erantzun bakararra egon daiteke: legea zorrotz betetzea. Legea betetzea ez den edozein gauza, legez kanpoko entzuketak direla, gerra zikina dela, nire ustez okerra da. Grazia egiten dit nola duela gutxi buruzagi politikoa batzuek bidelasterrik ez dagoela harro esaten zuten, eta elkarrizketa defenditzen dutenak bidelasterrik nahi dituztela. Eta gero bestelako bidelasterrik badagoela ageri da. Diskurtso ofizialaren inkongruentzia da eta erakusten du bide polizial guztiak ez direla nahikoak. Ezin dugu ahaztu arazo politikoa dela, eta politikoki konponduko da bakarrik.

■ CESIDen entzuteken kasuan, ohiko jardueraren aurrean gaude, gobernu batekin zein bestearekin?

Ni ez nintzateke ausartuko ohiko jarduerak direnik. Kasu honetan agerira atera da eta ondorio guztiakin hartu behar da azaldu izana. Kasu zehatz bat dago, epaileek ikertu behar dute eta ardura penalez gain erantzukizun politikoa asumitu beharra dago. Baina ezin da orokortu. Nire esperientzia pertsonalaren arabera, oso aldaketa garrantzitsua izan da Estatuako segurtasun gorputzetan eta gehien gehienak jokabide demokratikoa dituzte.

■ Zu Gobernuan izan zinen garaian HBren egoitza espiazten ari zeneko berririk duzu?

Ez daukat berririk. Nik esan dezakedana hau gu gobernutik joan eta bi urte beranduago agertu dela, denbora luzea, ez dira bi egun, baizik eta bi urte.

■ Posiblea da CESIDek horrelako eskuhartzea izatea eta ez ematea egiten ari denaren berri?

Itxaron behar da ea Defentsa ministroak eta epaileek zer esaten duten. Nire ustez, azken hitza epaileek diotena da. Baina demokrata izanik, ezin dugu onartu gerra zikinik edo legez kanpoko entzuketarik egotea.